



Albuma klasean landu aitzin, irakurketa aditu bat egitea, taula osatuz

Zer da irakurketa aditua?

- denen artean egiten den irakurketa,
- obra artoski irakurtzea,
- denen irakurketei esker, nork berak obra gero ta hobeki ulertzea.

Urraspide horri esker eta irakurketa anitz egin ondoan, norbera ohartzen da irakurle aditu bat bilakatzen ahal dela.

(Ikus: Irakurketa aditua – Eskimoaren mezua)

Hizkuntza lantzea

- **Hizkuntza helburuak**

... **-az** seme maiteaz, luzaz
... **baita** joana baita
... **-ra** ur bazterrera, etxera
... **-ren** zuraren zizelkatzea, auzoaren etxera
... **-n** zurean
... **-tzea** zizelkatzea
... **-rik** iziturik
... **-tzeko** itzultzeko

- **Hiztegia**

Izenak: horma, etxe, uharte, itsaso, kayak, arraun, itsas-xakur, karibu, pinguino, hartz, mezu, beharri, irri, seme, amaño, belar, ur, puska, auzo, marrazki, bizkar, itsas-joaira, istorioa, ilargi, bidaia, negu, itsaso, etxola, iglu
aditzak: hurbidu, joan, oroitu, zizelkatu, gustatu, irri egin, irakurri, entseatu, idatzi, abiatu, ibili, usnatu (usaindu), ihes egin, ikusi, hasi uzkaile, erori, igan, eraman, heldu, ekarri, egin, bota, erabili, itzuli, distiratu
adjektiboak: maitea, xuri, sinple, luze, hautsia, berri, betea
aditzondoak: gehiago, ardura, aspalditik, orain, lasterka, biziki, arras, lehenik, ondotik, luzaz, horra, isilik
erran-moldeak: To!

- **Aditz-jokoa**

Orainaldia: ari da ; joaten da
Iragan hurbila: abiatu da, idatzi du
Geroa: erabiliko du, izanen delarik

- **Kasuak**

Nor: joaten da
Nor nori: gustatzen zitzaion
Nork: beharrietarainoko irria egiten du

Jokoak *Eskimoaren mezua* albumaren inguruan

GARAPEN PEDAGOGIKOA

HELBURUAK :

- Albumaren ulermenetik ekoizpenera iragatea
- Albumetik abiatuz, hizkuntza lantzea: komunikazio-egoerak pentsatuz / hiztegia eta egiturak hautatuz edota sinplifikatuz eta finkatuz
- Ekoizpenetik ulermenera pasatzea

Jokoak Eskimoaren mezua albumaren inguruan

PROPOSAMENAK :

- Liburua erakutsi gabe eta haurrek istorioa ezagutu gabe, irakasleak ipuinaren irudi batzuk hautatuko ditu. Horietatik abiatuz haur-talde bakoitzak kronologia bat proposatuko du.
- Ikasleei liburua emanen zaie, baina hauek istorioa ezagutu aitzin beharko dute atzeman irakasleak eman irudiak albumean non diren (ttipituak/osoak/irudiaren zatiak).
- Istorioa ezagutu ondoan irudiak eta piktogramak parekatuko dituzte.
- Irudien eta piktogramen bitartez, Kautahuken eta amaren narrazio-denborak aztertu (Ikasleek irudiak ordena kronologikoan ezartzen dituzte. Adibidez, ikus [kronologia.pdf](#))



Jokoak *Eskimoaren mezua* albumaren inguruan

MEZUAREN JOKOA:

Helburuak:

- denborazko eta logika loturak erabiltzea **kronologia lantzeko** (*Lehenik / gero / ondotik/ azkenik / azkenean / beraz / ondorioz*)
- Mezu bat **kodetzea eta deskodetzea**: narrazioa / kontaketa lantzea
- Egitura eta hiztegia lantzea (ikus: hizkuntza lantzea 3. or.)

Materiala: (ikus: lotoa eta mezua)

- Piktograma kartak (bi karta-joko gutienez, jokalaria kopuruaren arabera) kutxa batean bilduak
- Kartoi bat, karten kukutzeko

Garapena:

Kontatzaile bat eta bi jokalaria.

Jokalariai kontatzailearen parean dira, kartoiaren gibelean jarriak, kontalariai kartak ez ikusteko gisan.

Kontatzaileak 3 edo 4 irudi hautatzen ditu (irudi kopurua mailaren arabera). Kartekin ipuin baten kronologia eraikitzen du eta jokalariei kontatzen die.

Jokalariek entzuten dutenaren arabera kutxan diren kartak atzeman behar dituzte eta haien aitzinean pausatu.

Kartoia kentzen da eta irudi-segidak konparatzen dira.

Berdinak baldin badira, jokalariek mezua deskodetzen lortu dute.

Rolak aldizkatzen dira.



Jokoak *Eskimoaren mezua* albumaren inguruan

LOTOA

Helburuak :

- **Egiturak eta hiztegia lantzeko**, irudia deskribatu
- Deskribapena **ulertu**

Materiala : (ikus: lotoa eta mezua)

- Irudi/piktograma, kartak/erranaldiak
- Kartoiak (piktograma edota irudiekin)

Garapena:

Joko-eramaile bat eta jokalaria.

Jokalaria bakoitzak kartoi bat badu. Joko-eramaileak deskribatzen duen ekintza bera duenak karta irabazten du.

Progresio bat egin daiteke:

Lehenik irudia irudiarekin lotuz, ondotik piktograma piktogramarekin, gero irudia piktogramarekin eta alderantziz.

CP/CE1 mailentzat erranaldiak sar daitezke.



Jokoak *Eskimoaren mezua* albumaren inguruan

Maketa bat egin eta hurrei istorioa bizi-araz eta kontaraz.





Urrunago joateko

Hona frantsesezko zenbait webgune:

- Pinguino enperadoreari buruzko dokumenatazioa linean (argazkiak legalki erabil daitezke) : <http://www.dinosoria.com/manchot-empereur.htm>
- Wikipedia inuitei buruz (irakaslearentzat)
- Avataq Cultural Institute: www.inuksite.com (jokoak linean eta ama-eskolako baliabide pedagogikoak urruneko iparraldeari buruz)
- Themamaternelle.free.fr (bankisa/ipar poloa)
- Thalassa emankizunean agertu erreportaia inuitei buruz:
<http://www.imineo.com/documentaires/decouverte/amerique-du-nord/thalassa-inuits-chasseurs-arctique-video-1909.htm>
(2min 21), eta irakasleek hauta ditzaketen beste filmak: inuiten eskola...



Lotu dokumentuak:

- Albumaren irudiak eta testua: <http://ikas.eus/spip.php?article2973>
- Irakurketa aditua, taula hutsa:
http://www.ikas.eus/IMG/docx/irakurketa_aditua_orok.docx
- Irakurketa aditua, Eskimoaren mezua:
http://ikas.eus/IMG/pdf/irakurketa_aditua_eskimoaren_mezua.pdf
- lotoa eta mezua: http://ikas.eus/IMG/pdf/loto_mezua.pdf
- Kronologia: <http://ikas.eus/IMG/pdf/kronologia.pdf>
- Bibliografia: Inuitak eta poloa: www.ikas.eus/IMG/pdf/bibliografia_poloa_inuitak.pdf